



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

20. Alea 1998ko Maiatza



FUTBITO TXAPELKETAK BADAUKA IRABAZLEA: POINTAX

- **Elkarrizketa:**
Karlos Azkarate
- **Erreportaia:**
Udaletxeak
Geilaoren
banaketari ezetza
- **Irakasle**
Eskolaren egun
arrakastatsua

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

- Udaletxea 714407
- Udal Bulegoak 714532
- Udaltzaingoa 714407
- Euskaltegia 792168
- Kultur-Etxea 714688
- Gizarte-Laguntzailea 714688
- Kiroletxea 715328
- Liburutegia 714688
- Luis Eceiza 714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 714486
- Almen 714964
- Museo-Eskola 714688
- Ze Barri 714077
- Talde Antimilitarista 715028
- Irakasle Eskola 714157
- Osakidetza 714452
- Telesko 714917
- Taxia 714059

Bestelakoak

- Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 797199
- Suhiltzaileak (Oñati) 792800
- Renfe (Zumarraga) 721515
- Renfe (Gasteiz) (945) 232030
- Pesa (Arrasate) 791419
- Larrialdiak (Arrasate) 771043
- SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:

AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Lourdes Martinez.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale


“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”



ESKORIATZAKO UDALA
Euskara Batzordea

Aldizkari honek Udaletxearen laguntza jasotzen du

Karlos Azkarate Cañamaque
Kiroletzeko atezaina



1-Denbora asko daramazu kiroletxeko atezain?

Urtarrilean hasi nintzen.

2-Ze ekintzak egin daitezke kiroletxean?

Futbito ,igeriketa ,sauna ,gimnasia ,pelota ,saskibaloia ,pin pona, ...

3-Futbiton jende asko ibiltzen da?

Astegun arratsaldeetan beteta egoten da , kanpotarrak ere etortzen dira , kantxa oso ondo dago eta.

4-Gimnasioa, zer moduz dago?

Makina asko daude eta beste leku batzietan baino hobeto dago , hori esaten dute behintzat erabiltzaileek.

5- Eta igerilekua?

Lehenengo boom hori pasatu da, baina oraindik ere jende asko etortzen da

6-Zenbat egin dira bazkide?

500 edo 600, baina norbanakoak eta famili bonoak daude.

7-Zein da kiroletxeko ordutegia?

Astelehenean 14'30etatik 20'30etara
Asteartetik larunbatera 9'30etatik 12'30etara eta 14'30etatik 20'30etara
Domekan 9'30etatik 13'00etara

8-Zertan erabiltzen duzu zure aisialdia?

Irakurtzen, lagunekin egoten eta poteatzen.

9-Zer aldaketuko zenuke alkatea bazina?

Eskoriatzako errepideak konponduko nituzke eta naturari kasu gehiago egingo nioke, herriko errekei adibidez.

10-Zer nabaritzen duzu faltan ZE BARRI aldizkarian?

Eritzi-meritziak gai bati buruz eta oso laburra dela.

Zer iruditzen zaizu Euroarena?



1-Angel Lezeta Belategi

Europan dauden beste herriekiko desberdintasunak berdin jarraituko du .Ohituko gara baina nagusientzako zailagoa izango da.



4-Mikel Barandiaran Garcia

Orain soldata txikiagoa irudituko zait, eta Europako gauzak ez zaizkit batere axola.



2-Iñaki Kortazar Arana

Ondo pentsetan jat.



5-Joseba Larzabal Uribarri

Uste dut moneta gogor bat behar dugula eta kutxek komisio gutxiago jaso behar dutela.



3-Nuria Martinez Barral

Nire ustez kristoren nahasketa izango da.Euskal Herriarentzako txarrerako izango da.



6-Imanol Muñoz Sanchez

Aldaketa gogorra izango da eta nagusientzako gogorra.

Baserri eta artisauen II. ferixie iazko arrakasta errepikatzen asmotan

Iaz ikastolaren zilarrezko ezteiak ospatzeko antolatu ziren ekintzen barruan, baserri eta artisau ferixiak arrakasta itzela izan zuela ikusita, aurten ere animatu zaigu **Jose Arana Almen ikastola II. ferixia antolatzen**. Ferixa hau **ekainaren 6an** ospatuko da eta antolatzaileek iazkoa bezain arrakastatsua izatea espero dute. Horretarako, arrakasta ziurtatzeko ekintza mordoa prestatu dituzte eta gu geu ziur gaude jaiegun apartaz gozatzeko aukera izango dugula.

Iaz bezala, Eskoriatzako hainbat baserrirek dituzten barazkirik ederrenak ekarriko dituzte ferixara, bertan erakusgai jarri eta nola ez, ekarritako guztia saltzeko intentzioz. Bestalde, baserrietan hazten dituzten hegaztiak ere egongo dira, hala nola baserriko: oilo, oilasko eta oilalokak. Baina, baserrietan hain ohikoa ez den ostruka izena duen hegaztiak ikusteko aukera ere izango dugu.

Bestalde, herriko artisau trebeen presentzia ere izango dugu, eta beren lanean duten abileziak jabetzeaz gain, egiten dituzten tresnak ikusi eta erosteko aukera ere egongo da. Hau guztia ikusgai, **10'30etatik 11'30etara** egongo da, eta ondoren izango dugu aurrez begiz jotako produktuak erosteko aukera.

Arratsaldeko 2etan sari banaketa egingo da: alde batetik, posturik dotoreenak saria jasoko du eta bestetik, postu bakoitzeko produktuez osatutako otar eder baten zozketa egingo da.

Antolatzaileek aurreratu digutenez aurtengo ferixan primiziarren bat izango dugu. Hala, jakin dugu aurten **txorimalo lehiaketa** egingo dela. Txorimaloak egunean bertan egingo dira, eta antolatzaileek arduratuko dira parte hartzaileek behar duten materiala hauei eskuratzen (lastoa eta makilak. erropak berriz, norberak ekarri beharko ditu). Nola ez, **txorimalorik dotoreenak**



saria izango du. Eta zeinek daki, zuk egindako txorimaloa baserriaren bati gustatuz gero, baliteke bere sorora barazkiak zaintza eramatea!. Lehiaketa hau **adin guztietako jendeari dago zuzenduta**, beraz, aitzakiarik ez duzu eh! **Pasa zaituzte Jose Arana Almen ikastolatik izena ematera ekainaren 3a baino lehen.** Animo eta badakizu, lagunekin ez bada, guraso edo anai-arrebekin, talde zein bakarka, ekainaren 6an duzu txorimalo dotore-dotore bat egiteko aukera!.

Baina bigarren primizia baten berri ere eman beharrea gaude. Izan ere, **talo ikastaroetan parte hartu zutenak, goiz osoan arituko dira talogintzan egiten.** Beraz, ezingo dugu pasatzen utzi eskoriatzar hauen otarteko goxoak probatzeko aukera.

Ferixa honekin nolabait aspaldiko ohiturak berreskuratzeko gura da, eta **dantzari, trikitilari, eta txalapartarien laguntza** aparteko euskal giroa izango dugu. Festa, ikus dezakezuenetz, garrantzitsua izango da eskoriatzarrentzat. Baina herrian halako ekintzak ez dira sarri egiten eta aurtengoaz gain hurrengo urteetan ere egingo bada, guztiok hartu beharko dugu parte egun honetarako antolatutako ekintzetan.

Magisterioren eguna

Maiatzaren 22an Eskoriatzan magisterioko ikasle eta irakasleek beren eguna ospatu zuten. Goizean 3.mailakoei agurra egin zieten eta **Txominen** jeitsierarekin (Celedonon jeitsieraren antzera) hasi zen festa, gero irakasle batek pregoia irakurri zuen. Jikana jokarekin jarraitu zuten eta trikipoteoarekin alaitu zituzten Eskoriatzako kaleak. 3retan bazkaltzera joan ziren San Viatorrera, bertan 100 eta piko pertsona elkartu ziren, ondoren karaokearekin hasi ziren eta txozna tiki bat ere ipini zuten. 19:30etan musika talde batek jo zuen magisterioko aparkalekuan, taldea ENEBADA zen. Han ere txozna bat zeukaten ipinita gure lagunak. Gauean Eskoriatza San Pedro jailetan bezala zegoen. Egun osoan oso giro polita egon zen kalean.



Karaokean parte hartu zuten ikasle talde hau umoretsu Txominen inguruan.

A & B
aholkulariak

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
LAGUN-ARO ASEGUROAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

ALDETEC



**TASAZIOAK
PERITAZIOAK
PROIEKTU ING.
OBRA ZUZENDARITZAK
ERREFORMAK**

Gastañadui, 7 - bajo
Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540 ESKORIATZA**

Eskoriatzako Udalak ezezkoa eman dio Gellao elizatea Aretxabaletari lotzeari

Eskoriatzako udalak apirilaren 29an eginiko Udal Batzan, Gellao elizateko biztanleen banaketa eskariari ezezko erantzuna eman zion. Bileran zinegotzi bi falta izan ziren: HBkoa bata eta PSOEkoa bestea. Bozketan kontrako zortzi botu egon ziren (EA-4-, HB-2-, IU-1-, eta Elizateak -1-) eta abstentzio bat, PNVkoa. Bestalde, Aretxabaletako Udal Batzak ez zuen ez aldeko ez kontrako erabakirik hartu, bakarrik espedientea jendeaurrean jartzeari buruz eztabaidatu zuen eta bozketan emaitza hauek jaso ziren: aldekoak 7: PNV -4-, EA -2-, PSOE-1-, eta HBkoen abstentzioak: 4.



Eskoriatzako plenoak bi arrazoitan oinarritu zuen bere erabakia. Lehena, Udaleko Ondare Batzorde Informatzaileak emandako irizpena eta bigarrena, Gellaon baserriak eta lurrak dituzten zenbait jabedunek, banaketaren aurka aurkeztutako idazkia. Azken hauek beren iritzia emateko askatasuna baduten arren, zentsuaren arabera Gellaoko biztanle bezala hartzen ez direnez, ezin dute boturik eman arazo honetan.

Erabaki hau hartu ondoren, espedientea 30 egunez egon da ikusgai, nahi duenak bere iritzia azal dezan. Hilabete hau pasa ondoren, Eskoriatzako udalak beste lau hilabete izango ditu azken iritzia azaltzeko. Bestalde, espediente osoa, hau da, Gellaotarren txostena eta Eskoriatzako eta Aretxabaletako Udaleko eritziak Gipuzkoako Diputazioari bidaliko zaizkio, honek hartu beharko baitu

azken erabakia.

Ondare Batzordeak emandako irizpena

Ondare Batzorde Informatzaileak emandako irizpen hau, Eskoriatzako Elizateen Elkarteak gellaotarren eskaerari buruz eginiko txosten batean oinarritzen da. Ondare Batzordeak onartutako dokumentu honek bi zati ditu: lehenengoan gellaotarrek aurkeztutako txostenari erantzuten zaio eta bigarrean, prosezua hauek arautzen dituen Foru Arauak jasotzen dituen helburuak eta arazoak Gellaoko kasuan betetzen diren ala ez aztertzen da.

Udalaren iritziz, gellaotarrak atxabaltar sentitzea normala da, bertan bizi diren gehienak atxabaltarrak direlako: <<Gellaon erroldutako 29 biztanleetatik 18, hots, %62^a, 1986az

geroztik erroldaratu dira Gellaon. 18 horietatik 15, hau da gellaotarren erdiak, Aretxabaletakoak dira.

Ur horniduren gaia

Banaketa eskari hau bat-batean martxan jartzeko ur horniduren gaiak garrantzi handia izan du. Arazo honi, gellaotarrek 1992an eskaria egin zutenetik, ez zaio erantzunik eman. Idazkian Aretxabaletako udalarekin izandako negoziazio prozesu osoa zehazten da, eta honi buruz honako azalpen hau ematen da: "Gellao elizatea urez hornitzeko kontu honetan Aretxabaletako udalaren lankidetzaz izan badugu ere, gure ustez Aretxabaletako udalak jarrera erabakiorragoa izan beharko luke".

Modu berean gellaotarrek egindako salaketa honi: << Eskoriatzak ez ditu arazoak konpontzen ez eta

ALDI
JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA

DORLETA
Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

SERVICIOS DE LIMPIEZA

Zuri Garbiketak

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Tfnoa-Faxa: 943 714845
ESKORIATZA

iniziatibarik hartzen ere>> erantzun garbia eta zuzena ematen zaio honako hau frogatuz: 80. hamarkadatik aurrera udalak beste elizateetan eta Gellaon antzerako inbertsioak egin direla eta ez dagoela alde nabarmenik.

Gellaotarrek, Aretxabaletarekin harreman haundiagoa dutela adierazten duen beste argumentu batek, dituzten zerbitzuen erabilera aipatzen du: osasun zerbitzua, posta, banketxeak eta merkatal zerbitzuak. Udalak, zerbitzu horiek guztiak udalari dagozkionak ez direla argitzen du, beraz eta ondorioz, ezin duela erabaki nork eta non erabili behar dituen. Honi lotuta, Gellaoko biztanleek Eskoriatzako udalak betetzen duen funtzio bakarra zerga kobrantza eta hauteskundeetan botoa jasotzearena dela esaten dute. Honi erantzunez, udalak dio Eskoriatzak Donostiarekin duen harremana antzerakoa dela, hau da, zergak ordaintzera eta eskoriatzarren botoa jasotzera mugatzen dela harreman hori, baina egoera horrek ez duela eskoriatzarrengan elkarbizitzarako arazorik edo marjinaziorik sortzen.

Foru Arauan jasotzen diren xedeak eta arrazoiak ez betetzea.

Udalak eginiko txostenaren bigarren atalean, banaketa hauek arautzen dituen Foru Arauak jasotzen dituen helburuak eta arrazoiak Gellaoko kasuan betetzen diren aztertzen da. Bete behar diren helburuak hauek dira: udal eskumeneko zerbitzugintza hobetzea, udalen kudeaketa ahalmena handitzea eta udal barrutiak errealitate fisikoetara, demografikoetara eta

Gellaoko lurjabe eta baserritar batzuen ahotik.

Nola jakin zenuten Gellaotar batzuk Atxabaltara pasa nahi zutela?

Atxabaltara pasa nahi zutela eta, udaletxean eskaria egin zuten. Guk prentzaz jakin dugu eta honek mindu egin gaitu, egun Gellaon bizi ez garen arren, lurra eta baserriak hantxe ditugunez, iruditzen zaigu guk ere badugula zer esanik guzti honetan.

Zergatik aurkeztu zenuen idatzia?

Ba, haien erabakiaz ados ez geundenen eritzia ere kontutan hartua izan zedin. Idazkia nik aurkeztu arren, hainbat pertsonen sinadurak batu nituen, jende gehiago ere geratu zen sinatzekotan. Gure ustez erabaki okerra da, gainera erabaki hori hartu duten gehienak ez dira jaiotzez Gellaokoak, eta kontutan izan beharko lukete Gellaon egin dutela beste herri batean ezin izan dutena egin. Gellaora bizitzera etorri zirenean, bazekiten zerekin aurkituko ziren.

Zer iruditzen zaizkizu eman dituzten arrazoiak?

Egia da ur horniketa Galartzatik dagoela eginik, baina hori gertuago gelditzen zitzaielako erabaki zen horrela. Gainera, ur horniketaren ardura mankomunitatearen barruan sartzen da. Bestalde, ez dut uste Eskoriatzako udalak beste auzuekin alderatuz Geilaori interes gutxiago ipini dionik. Gainerako arrazoiak (osakidetza, bankuak, posta zerbitzua...) ez daukate udaletxearekin zerikusirik. Azkenean, norberak komodidadien arabera hartzen ditu tankera horretako erabakixek.

Azken erabakixe Diputazioarena da, gauzak aldatuko direla uste duzu?

Aldaketak egongo direnik zail ikusten dut. Gainera, ez dut uste horrenbesteko mesderik ekarriko liekenik. Izan ere, planteatu dituzten zenbait arazok ez du udaletxearekin zerikusi zuzenik; zaborra, ur horniketa... mankomunitatearen ardura baitira.



JESUS ERRARTE

hirigintzakoetara egokitzea. Eskoriatzako Udalaren ustez helburu hauek ez dira betetzen eta eskaeran azaltzen diren arrazoiak ez datoz bat Foru Arauan azaltzen direnekin.

Udalaren iritzi, eztabaida honi irtenbidea emateko, ez dago Gella Aretxabaletara atxikitu beharrik, Leintz bailarako biztanleen behar berriei erantzunik egokiena emateko Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udalek apurka-apurka elkarlanean ihardun beharra baizik. Hori lortzea posible da gaur egungo lurralde eraketarekin eta

bakoitzak bere udal autonomia mantenduz.

Hilabete hau pasa ondoren, Eskoriatzako Udalak beste lau hilabete izango ditu azken iritzia azaltzeko. Espediente osoa, hau da Gellaotarren txostena eta Eskoriatzako eta Aretxabaletako Udalen iritzia Gipuzkoako Diputazioari bidaliko zaizkio, berak, Diputazioak, hartu beharko duelako azken erabakia.

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822
GOIZEKO 6ETAN ZABALIK
EGUNEROKO MENUA 900 PTA.



ALTUNA

Harategia

Etxean hazitako okela

San Pedro, 3 • Tf. 943 714104
HARATEGIA • Tf. 943 714464

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

EROSLE

HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3
Tfnoa: 943 714546

Luis Ezeiza ikastetxea Europako eskolekin elkarlanean

Luis Ezeiza Herri Ikastetxeak Europar Batasunak bultzatzen duen hiru urtetako proiektu baten dihardu lanean. Zeregin honetan Luis Ezeizaz gain beste hiru ikastetxe dira partaide: Italian Siroloko "Scuola Elementare Giulietti" eta Numanako "Scuola Elementare Augusto Elia" eta Bretaina Handian Bradford-eko "Undercliffe First School".

Eskolen arteko hezkuntza proiektu honen bidez, nazio ezberdinetako ikasleen arteko elkar harremana bultzatu nahi da beraien lurraldeei buruzko informazioa trukatzuz, herrialdeen "errealitatea" zuzenago ezagu dezaten.

Ikasturte honetan zehar egindako lanaren

balorapena, eta datorren ikasturterako plangintza egiteko asmoz Eskoriatzan elkartu dira Proiektu honetan parte hartzen duten lau eskolatako irakasleak Maiatzaren 18tik 22rarte, iaz Sirolon eta datorren urtean Bradford-en egingo duten legez. Hau dela eta, aste honetan zehar hainbat ekintza burutu dute. Alde batetik datorren

ikasturtean ekologia eta ingurugiroari buruz aurrera eramango den plangintza aztertu eta bateratu dute eta bestaldetik gure herri, bailara eta lurraldea ezagutzeko aukera ezin hobea izan dute orain arte bidali zaizkien lanetan jasotakoa osatuz.

Esperientzia oso baikorra izan da asteen zehar kanpotar irakasleek gure inguruak ezagutuz gain eskolako irakasle, ikasle eta gurasoekin harremanak eduki ahal izan dituztelako eta aurreko urteetan egindako lanen erakusketa gure esperientzia bailarako irakasleei, eskolako gurasoei eta gainerako herritarrei baliogarria izan delako.

Bukatzeko aipatu topaketa hauetan aurrera eraman diren hainbat ekintza Gatzaga eta Eskoriatzako Udalen laguntzaz ospatu izan direla. Doakiela hemendik esker ona.



Luis Ezeizako eta kanpoko irakasleak haizearen orrazian

Futbito txapelketa.

Maiatzan 23an amaitu zen futbito txapelketa. Irabazlea POINTAX taldea izan zen. Finalean HI, TXO taldeari irabazi zion penaltiz, partidua 1-1 geratu ondoren. 3. postuan YOU KNOW taldea geratu zen eta 4. postuan PITO BINGO taldea.



Aipatzekoa da antolatzaileak Eskoriatzako gazte batzuk izan direla eta oso ondo egin dutela euren lana.

Ekainerako igeriketa ikastaroak:

Orain duzu igeri egiten ikasteko aukera. Polikiroldegian ekainerako taldeak osatzen ari dira, joan zaitez kiroldegira apuntatzera! edo telefono honetara deitu: 71 5328. talde bakoitzean 7-12 partaide agongo dira, baina adinaren arabera banatuta:

	Egunak	Ikasteko	prefekzionatzeko	Prezioa/hileko
UMEAK (4-tik, 14urtera)	asteleheneretik eguakotzerarte	17:00-17:45	17:45- 18:30	2.500
NAGUSIAK				
1. Taldea	astelehen eguazten, eguakotxa	18:30-19:45		3.500
2. Taldea	martizena eta eguenetan+ saio bat 1. edo 3. taldean		19:15- 20:00	
3. Taldea	eguazten eta eguakotxetan	11:30- 12:15	11:30-12:15	
3. ADINA	eguazten eta eguakotxetan	11:00-11:45		2.500
MINUSBALITUA	eguaztenetan		19:15-20:00	2.000

Cuenta Joven de Caja Laboral El servicio más completo.

Euskadiko Kutxaren Kontu Gaztea. Zerbitzuetan osatuena.

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

LENIZ
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

GAZTE AGENDA**UDAKO OPORRALDIAK**

*18-29 urte arteko pertsoneri zuzendua dago kanpaina hau. Uztailan Huescan uretako ekintzak eta Lleidan askotariko ekintzak, eta abuztuan Huescan arroiaren jeitsiera egiteko aukera Diputazioaren eskutik. Izen emateko **epea: ekainaren 1etik 26ra**, Arrasateko Gazte Bulegoan.

HIZKUNTZ EGONALDIAK

* Diputazioaren udako kanpainaren barne, abuztuan ingelesa ikasteko aukera, Segurako aterpetxean. Izen emateko **epea: ekainaren 1etik 26ra**, Arrasateko Gazte Bulegoan.

BEKAK

* "España-USA 2000" beka, lizentziatuentzat Estatu Batuetan ikasketak osatzeko aukera. **Epea: ekainak 4.**
* Laburmetriak produzitzeko laguntzak ICCA antolatua. **Epea: ekainak 23.**
* SGA Eren eskutik, ikusentzunezko artea, antzerkia, musika eta dantzaren

arloan Estatu Batuetan ikasketak osatzeko beka. **Epea: uztailak 2.**

LANA

* Ibarako Udalerako, administrari laguntzaile bat behar da. **Epea: ekainak 3.**

* Mairagako Mankomunitateak, Nafarroan, ekonomi aholkulari bat behar du. **Epea: ekainak 5.**

* Doneztebeko Udalerako, akordeoi, piano, txistu eta trompeta irakasleak behar dira. **Epea: ekainak 8.**

* Ondarruko Udalak, artxibo-liburutegiko teknikaria behar du. **Epea: ekainak 13.**

LEHIAKETAK

* Irun Hiria XXIX. Literatur Sariak, olerkia, eleberria eta saiakera alorrean, euskeraz nahiz gaztelera idatziak. **Epea: uztailak 15.**

* Astigarragako Udalak, urteroko argazki lehiaketa antolatu du; zuri beltzean edo koloretan eta gai librean. **Epea: azaroaren 27an.**

Jaiotzak eta ezkontzak**EZKONTZAK**

* *Apirilaren 25ean*
Francisco Arana Altuna (Eskoriatza)
Ines M^a Andres Valentin (Eskoriatza)
* *Maiatzaren 9an*
Jesus Zugasti Lopez de Armentia (Aretxabaleta)
Aitziber Zufiria Oianguren (Eskoriatza)
* *Maiatzaren 23an*
Santi Garcia de Salazar Agirregoikoa (Eskoriatza)
Begoña Rodriguez Martin (Eskoriatza)

JAIOTZAK

Apirilak 1 ARIANE Aguilera Gordillo
Apirilak 13 CAROLINA Martin Gonzalez
Apirilak 12 AITZIBER Colino Garcia
Apirilak 21 ALAZNE Miguelez Aldai

Maiatzak 2 EIDER Elorza Agiriano
Maiatzak 9 IRUNE Urrutia Unanue
Maiatzak 12 ANE Arraeta Iñurrategi

AGENDA*** HAURREN EGUNA.**

Maiatzaren 31an hainbat herritako haurrak kalez kale ibiliko dira dantzari.

*** ESKORIATZA-ARRASATE VI KROSS HERRIKOIA.**

Ekainaren 7an.

OHARRA*** SAN PEDRO AUZOAN OBRETAN.**


tuberia kolektorearen obrak Maiatzaren 25ean hasi ziren eta ekainaren 6arte luzatuko dira. Zenbait tramotan bidea ebakita egongo da. Pazientziak hartu.

LIBURU GOMENDIOA**"ISLADAK" Unai Iturriaga Alfaguara / Zubia**

Gaur gomendatzen dizuedan liburua ez ohikoa da, Eskoriatzan eguraldi ona ez den bezalaxe. Udaberria aurrera doa, hilabete barru uda. Uda bai, uda. Eguzkia, hondartza, itsasoa, palmondoak... Baina, bitartean eta, eguraldi honekin, zer egin?

Hona hemen Unai Iturriagak "idatzi" duen lehen liburua: Isladak. Esaten nizuena moduan ez ohikoa. Ez ohikoa egitura aldetik, ezkeraldeko orrialdetan berak hautaturiko poesiak. Olerkia anitza, idazle askoren olerkiak (A. Block, J. Sarrionaindia, B. Atxaga, F. Pessoa, Kavafis, V. Parra, besteak beste...). Olerki motzak bezain esanguratsuek bertan topatuko. Soslai zehaztugabeak, auto baten argi itsuaren printzeta, ... labur esateko, neure burutazioak".

Eduki aldetik, ostera, zer esan? Eta zuk irakurle, zuk zeuk, irakurri beharko zenituzke poema bakoitzak gozatzeko. Isladak, komentarioen gaiak, ordea, anitzak dira. Anitzak izanez ere hauen interpretazioak. Eskoriatzan eguraldi hotza, eguzkirik ez... eta zer egin?... "Ez nik ez beste inork ezin du zure orde z bide hori egin, zeu zara egin behar duena".



Industrias Olabbarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxe: 34-43 - 714061

LENIZ
AUTO ESKOLA


tel. 943 71 41 86

Gida baimen guztiak!

E. MAZMELA

HORTZ
KLINIKA

Tel. 943 71 47 36



1948. urteko San Pedroetan ateratako argazkia dugu hau. Urte hartan izugarrizko jaiak egin ei zituzten, amerikar-eskoriatzar baten kontura.

Urtero egiten den bizikleta karrera atzeratu eta urte honetan motor karrera antolatu zuten. Karreran trafikoko poliziek parte hartu omen zuten gehienbat. Irabazlea Otxandioko Koldo Goikoetxea izan zen, Talgoa asmatu zuenaren iloba.

Bezperako entrenamenduetan istipuz hil zen motordunetako bat, tren geltoki inguruko zubia jo eta erre kara jausita.

Argazkia: Javier Eraña

Informazioa: Angel Arrese

**Ondo pasau San Pedro txiki jaietan!!!
eta baita San Pedroetan ere!!!.**

LAGUNDU ZE BARRI EGITEN
Asteazkenetan 7retan Polikiroldegian
Publizitatea, deitu: 71 40 77